

# *Egoeraren Azterketa*



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Enplegua: hobekuntzarik ez**

**HEHn 227.334 lagun daude  
langabezian izena emanik**

**104.971 langabek ez dute  
inolako langabezia-sarrerarik**

**Aldi baterako kontratazioa  
inoizko mailarik altuenetan**

**EEEn ondorioz  
15 lagun egunero kale gorrian**

**Ekonomiaren hazkunde  
negatiboa 2013an**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan- eta ekonomi-egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)</b>			
JARDUERA TASA (%)	74,9	2013ko IV. HIRUHILEKOA	75,2
JARDUERA TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	72,2	2013ko III. HIRUHILEKOA	72,0
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.086.000	2013ko IV. HIRUHILEKOA	1.104.400
SOLDATAKO BIZTANLERIA	900.300	2013ko IV. HIRUHILEKOA	917.600
ALDI BATERAKO TASA (%)	20,9	2013ko IV. HIRUHILEKOA	19,9
ALDI BATERAKO TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	14,2	2013ko III. HIRUHILEKOA	14
BIZTANLERIA LANGABETUA	207.800	2013ko IV. HIRUHILEKOA	215.400
LANGABEZI TASA (%)	16,1	2013ko IV. HIRUHILEKOA	16,3
LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	10,6	2013ko III. HIRUHILEKOA	10,4
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	46,6	2013ko IV. HIRUHILEKOA	47,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	23	2013ko IV. HIRUHILEKOA	22,7
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	16,4	2013ko IV. HIRUHILEKOA	16,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	10,7	2013ko III. HIRUHILEKOA	10,5
SINATURIKO KONTRATUAK	81.776	2014ko URTARRILA	72.721
KONTRATATU MUGAGABEAK	5.501	2014ko URTARRILA	5.863
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>			
ERAGINDAKO LANGILEAK	52.357	2013ko URTARRILA-AZAROA	63.076
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-1,0	2013ko ABENDUA	-5,5
BPGd EAEn (%ALD.)	-0,6	2013ko IV. HIRUHILEKOA	-1,1
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-0,6	2013ko IV. HIRUHILEKOA	-1,8
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-0,1	2013ko IV. HIRUHILEKOA	-2,1
BPGd 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1	2013ko IV. HIRUHILEKOA	-0,7
<b>PREZIOAK</b>			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	0,3	2014ko URTARRILA	2,8
URTEARTEKO KPIa 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,0	2013ko ABENDUA	2,3
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra			
<b>2014/02/27ean eguneraturiko informazioarekin</b>			



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Enplegua: hobekuntzarik ez..... 4
2. Hego Euskal Herrian 227.334 lagun daude langabezian izena emanik..... 4
3. 104.971 langabek ez dute inolako langabezia-sarrerarik ..... 5
4. Aldi baterako kontratazioa inoizko mailarik altuenetan ..... 6
5. 15 EEEen ondorioz, 15 lagun egunero kale gorrian ..... 7
6. Ekonomiaren hazkunde negatiboa 2013an..... 8
7. KPIren bilakaera..... 8

## PUNTAKO GAIA:

### 2014-2016ko enplegu planaren balorazioa eta ELAren proposamenak enplegu duinaren alde

1. Eusko Jaurlaritzaren enplegu plana ..... 9
2. Kalitatezko enplegua sortzeko ELAren proposamenak..... 11

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoerari buruzko Azterketa honetan hainbat gai jorratu ditugu, hala nola zer-nola bilakatu den langabezia 2013an, langabeen egoera zertan den eta gastua langabezia-sarrietan. Era berean, urtean zehar izaniko lan-kontratazioa izan dugu aztergai. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plana aztertu eta ELAk kalitatezko enplegua sortzeko egin dituen proposamenak jasoko ditugu.

Manu Robles-Arangiz Institutua  
[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)  
Twitter: @mrafundazioa

\* Txosten hau 2014ko otsailaren 27an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

## 1. Enplegua: hobekuntzarik ez

Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuek erakutsi dute 1.086.000 lagun enplegatu daudela Hego Euskal Herrian 2013ko laugarren hiruhilekoan; hots, 574.600 gizonetzko (% 54,6) eta 511.500 emakumezko (% 45,4). Datuok agerian jarri dute 18.400 enplegu suntsitu direla 2013an, horietatik 11.600 gizonetzkoenak izan dira, eta 6.800 berriz, emakumezkoenak.

2013an, enpleguaren % 1,7 galdu da; horrek esan nahi du beste urte batez ere suntsitu dela enplegua. Izan ere, 2008tik hona, 162.300 lanpostu galdu dira, eta lanpostuak 2010ean bakarrik sortu ziren (12.200 enplegu gehiago, hain zuzen

### Biztanleria landunaren bilakaera. Hego Euskal Herria, IV. hiruhilekoa 2008-2013

2009-IV	2010-IV	2011-IV	2012-IV	2013-V
-58.700	12.200	21.400	-76.000	-18.400

Iturria: INE

Sektorez sektore, 755.800 lagun zerbitzuen sektorean aritu dira (guztien % 69,6), 234.900 industrian (% 21,6), 67.900 eraikuntzan (% 6,3) eta 27.600 lehen sektorean (% 2,5). Zerbitzuen sektoreak galdu ditu enplegurik gehien (22.100) eta gero industriak (2.400). Eraikuntzak, aldiz, lagun gehiago izan ditu lanean 2013ko laugarren hiruhilekoan (600), bai eta lehen sektoreak ere (5.600 enplegu, baina sektoreak pisu txikia duenez, datuaren errorea altua izan daiteke).

Laugarren hiruhilekoko soldatapeko biztanleria 900.300 lagun izan da (enpleguen % 82,9). Soldatapeko lagun guztietatik 455.500 gizonetzkoak izan dira (% 50,6) eta 444.800 emakumezkoak (% 49,4). Iaz, soldatapeko 17.300 enplegu suntsitu ziren; 9.400 gizonetzkoenak, eta 7.900, emakumezkoenak. Beraz, 2013an suntsitu den ia enplegu guztia soldatapeko enplegua izan da.

Soldatapeko 187.900 lagun aldi baterako kontratuarekin aritu dira; hau da, aurreko urtean baino 5.700 gehiago. Kontuan harturik soldatapeko enplegua guztira 17.300 postutan jaitsi dela, aldi baterako soldatapeko lana

5.700etan igo izanak erakusten du noraino ugartu den kontratazio mota hori.

Horrela, behin-behinekotasun tasa % 20,9 izan da, hau da, 28-EBko tasa baino 6,7 puntu altuagoa (% 14,2 hirugarren hiruhilekoan, argitaratu den azkena). Behin-behinekotasuna 6,8 puntu altuagoa da emakumeen artean (% 24,3) gizonen artean baino (% 17,5); beraz, behin-behinekotasuna da alderik handienetakoa duen aldagaietako bat generoari dagokionean. Emakumezkoen behin-behinekotasun tasaren aldea 9,6 puntu da 28-EBren batez bestekoaren aldean, % 14,7 baita. Gazteenen arteko behin-behinekotasuna % 74,5 da, hots, 30,1 puntu gehiago Europako ingurunean baino, eta 9,8 gehiago, duela urtebete baino.

Behin-behinekotasun tasak 2013an izaniko bilakaerak puntu bateko igoera erakutsi du (2012ko laugarren lauhilekoan izaniko % 19,9tik 2013ko azken lauhilekoko % 20,9ra).

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 207.800 langabe izan dira 2013ko laugarren hiruhilekoan Hego Euskal Herrian; haietatik 108.000 gizonetzkoak izan dira (% 52) eta 99.800 emakumezkoak (% 48). Horrek esan nahi du 7.600 langabe gutxiago izan direla 2013an; haietatik 4.200 gizonetzkoak izan dira, eta 3.400, emakumezkoak.

Biztanleria langabea 7.600 lagunetan jaitsi da, biztanleria aktiboa 26.000 lagunetan jaitsi delako. Hau da, langabezia ez da jaitsi enplegua sortu delako, baizik eta jendea gogorik gabe gelditu delako enplegua bilatzeko. Gauzak horrela, 2013an lagun aktiboen kopurua mantendu izan balitz, langabe kopuruak gora egingen zukeen; zehazki, zenbat enplegu suntsitu ziren 2013an, halako kopuruan, eta arestian adierazi dugun bezala, 18.400 enplegu suntsitu ziren.

## 2. Hego Euskal Herrian 227.334 lagun daude langabezian izena emanik

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) argitara emandako datuek erakusten dute 227.334 langabe daudela urtarrian, hau da, abenduan




baino 8.472 gehiago eta duela urtebete baino 3.544 gutxiago.

Hego Euskal Herriko langabezia-tasa (SEPEk eta EPAk emandako datuetan oinarriturik kalkulatu) % 17,6 izan da, urtebetean 0,2 puntu jaitsi ondoren. Horrela, langabezia mailak Europan dagoenaren oso gainera segitzen du. Izan ere, 28-EBko langabezia-tasa % 10,7 izan da aurtengo urtarrian; horrek esan nahi du HEHko langabezia % 6,9 handiagoa dela (% 17,6). Izan ere, Greziak (% 27,8), Espainiar Estatuak (% 25,6) eta Kroaziak (% 18,6) dute HEHkoa baino langabezia-tasa handiagoa. Beste muturrean, Austriako langabezia % 4,9 da (12,7 puntu gutxiago), Alemaniakoa % 5,1 (% 12,5 gutxiago) eta Luxenburgokoa % 6,2 (% 10,8 gutxiago).

Langabezia-tasa sexuaren arabera aztertzen badugu, % 16,2 da gizonezkoen artean, eta % 19,1 emakumezkoen artean. Emakumezkoen langabezia-tasa % 10,7 da Europan 2013ko hirugarren hiruilekoan (argitaratu den azken datua); hau da, 8,4 puntu gutxiago HEHn baino.

Sexuaren arabera bilakaera erakusten du gizonezkoen arteko langabeziak 0,1 puntu egin duela behera (% 16,3tik % 16,2ra); emakumezkoen artekoak, aldiz, 0,3 egin du gora (% 18,8tik % 19,1era). Horrela, emakumeen arteko langabezia handiagoa zen, eta aldea gainera, handitu egin da.

### Langabezia-tasaren bilakaera sexuaren arabera. Hego Euskal Herria, 2010-2014




Iturria: EPA, SEPE

Gazteen langabezia-tasa, bestalde, % 46,6 izan da, eta 25etik 36ra bitarteko adin taldearena,

berriz, % 20,3. Datu horiek EPAren arabera kalkulatu dira, SEPEn izena emanik dagoen gazte biztanleria gazte langabeen zati bat bakarrik delako.

28-EBko gazte langabezia % 23 izan da 2013ko hirugarren hiruilekoan, hau da, HEHko tasaren erdira ere ez da iristen (% 46,6 baita).

### Langabezia-tasa, 28-EB (%). 2014ko urtarria



Iturriak: SEPE, EPA, Eurostat

## 3. 104.971 langabek ez dute inolako langabezia-sarrerarik

Ez da ezer ere eginen langabeen egoera gordina arintzeko. 2013ko abenduan (argitara emandako azkena), 104.971 lagun izan dira izena emanik langabezia saririk jaso gabe. Hau da, langabeen % 48k ez du inolako prestaziorik jasotzen. Oso kezkarria da inolako prestaziorik jasotzen ez duen langabe kopuruaren bilakaera. 2009az geroztik, izan ere, halako bi baino gehiago handitu da (53.409 lagun gehiago; 17,5 puntu), eta urtetik urtera, gora doa. Azken urtean, gora ere egin du, langabe guztien % 45,2tik % 48ra igaro baita.

### Prestaziorik jasotzen ez duten langabeak. HEH, abendua 2009-2013

	2009	2011	2012	2013
Prestaziorik gabekoak	51.562	79.059	99.818	104.971
" (%)	30,5	41,1	45,2	48,0

Iturria: SEPE



Langabeen % 20,8k sorospenak edo gizarteratzeko errenta aktiboa kobratzen du, baina kotizaziopeko prestazioa baino txikiagoak dira.

% 31,2k bakarrik kobratzen du kotizaziopeko prestazioa (hau da, egindako kotizazioen arabera). Kotizaziopeko prestazioaren arabera zenbatekoa 927,5 euro izan da batez beste Nafarroan 2013ko abenduan, eta 929,9 euro EAEn. Horrek esan nahi du 2013ko abenduan jaitsi egin dela kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa, azken bost urteen aldean.

Horrela, Nafarroan batez beste 29,9 euro gutxiago jaso dira 2012ko abenduan baino kotizaziopeko prestazioetan (% 3,1 gutxiago) eta 14,5 euro gutxiago 2009ko abenduan baino. EAEn, bestalde, azken urtebetean 31,4 euro galdu dira (% 3,2), eta 2 euro, 2009tik hona (% 0,2). s


### Langabeziaren kotizaziopeko prestazioaren zenbatekoa batez beste (eurotan). HEH, 2009-2013

	2009	2010	2011	2012	2013
Nafarroa	942,0	953,9	956,5	957,4	927,5
EAE	931,9	950,2	954,2	961,3	929,9

Iturria: SEPE

Aurreko datua bezain kezkarria da gastuak izan duen bilakaera langabezia-sariei dagokienez; izan ere, murrizketa eta doikuntza politiken ondorioz, 2013ko abenduko gastua azken bost urte honetako txikiena izan da. Zehazki, abenduan 126,9 milioi euro bideratu dira langabezia-sarietara (hala kotizaziopekoak nola sorospenak eta gizarteratzeko errenta aktiboa); hau da, 2012ko abenduan baino 20,2 milioi gutxiago (% 14 gutxiago), eta 2009ko abenduan baino 13,7 gutxiago (% 9,7 gutxiago). Hala ere, bost urte honetan, 50.008 lagunetan igo da langabezia erregistratua; hau da, % 29,6 gehiago. Azken finean, 2009tik aurrera, langabezia erregistratua % 29,6 igo da; eta prestazio-gastuak, aldiz, % 9,7 murriztu da.

### Gastua langabezia-sarietan (milaka eurotan) eta langabezia erregistratua (lagun kopurua). HEH, 2009-2013



Iturria: SEPE


## 4. Aldi baterako kontratazioa inoizko mailarik altuenetan

Behin-behinekotasuna gora doa lan-erreformen eta enplegu-politikaren ondorioz, eta lan-baldintzak gero eta kaskarragoak dira.

Horrela, 2013ko datuek erakusten dute 2013an sinatutako 934.890 kontratuetatik 877.840 aldi baterakoak izan direla; hau da, % 93,8. 2014ko urtarrian, ehuneko hori % 93,2 izan da.

Bilakaerak erakusten du 1,5 puntu igo dela aldi baterako kontratu sinatuen kopurua azken bost urte honetan, eta duela bost urte jada oso altua zen (2009an, sinatutako kontratuen % 92,3 aldi baterakoak izan ziren). Horrela, aldi baterako kontratazioa berriz ere igo da mailarik altuenera, 2011n bezalaxe (% 93,8).

### Aldi baterako kontratazioaren bilakaera. HEH (%). 2009-2013




Iturria: SEPE



2014ko urtarrilean, aldi baterako kontratuak % 93,2 izan dira. Sexuen arabera, kontratuen % 51,1 emakumeek sinatu dituzte (81.776 kontratuetatik 41.803). Emakumeek gizonek baino kontratu gehiago sinatzea zor zaio aldi baterako kontratu gehiago sinatu izanari (aldi baterako kontratuen % 51,2 emakumezkoek sinatu dituzte); aldiz, kontratu mugagabeetan, proportzioa parekatuagoa dago; izan ere, kontratuen % 50,2 emakumeek sinatu dituzte, eta % 49,8, gizonzkoek.

Kontratazioa kontratu motaren arabera aztertzen badugu, motarik erabiliena ekoizpenaren inguruabarren arabera egindako aldi baterako kontratua izan da (% 38,31); gero, obra edo zerbitzu jakin bati lotutakoa (guztien % 26,29), eta bitarte batekoa (% 22,39). Kontratu motetan bosgarrena da kontratu mugagabe arrunta (% 4,58). Lau kontratu mota horien artean kontratu guztien % 92 bilduta daude.

### Kontratuak modalitatearen arabera (%). HEH, 2014ko urtarrila



Iturria: SEPE

Beste datu batek ere -lanaldi partzialeko kontratuei dagokien datuak- erakusten du emakumeek prekaritate handiagoa dutela bai kontratazioan bai lanean. Horren haritik, emakumeek gizonek baino askoz ere kontratu gehiago sinatzen dituzte, hala aldi baterakoak nola mugagabeak.

2013. urtean, lanaldi partzialeko 340.107 kontratu sinatu dira (2012an baino % 6,6 gehiago), kontratu guztien % 36,4. Kontratu horien % 68,4 emakumeek sinatu dituzte, eta gizonzkoek, % 31,6.

Lanaldi partzialeko kontratu mugagabeei dagokienez, % 70,5 emakumezkoek dagozkie, eta lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuen % 68,3 ere bai.

### Kontratuak motaren, lanaldiaren eta sexuaren arabera. HEH, 2013

	Gizonez. %	Emak. %	Guztira
Mugagabeak lanaldi partz.	29,5	70,5	21.592
Behin-behineko lanaldi partz.	31,7	68,3	318.515
Lanaldi partz. kontratuak denera	31,6	68,4	340.107

Iturria: SEPE

## 5. 15 EEEn ondorioz, 15 lagun egunero kale gorrian

Enplegu eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuek erakusten dute 52.357 lagun ukitu dituztela enplegua erregulatzeko espedienteek (EEE) 2013ko azarora arte, Hego Euskal Herrian; hau da, 10.719 gutxiago aurreko urteko epealdi berean baino, % 17 gutxiago.

Espedienteek ukitutako lagun kopuruak gora egin zuen nabarmen 2009an, 2008an krisia hasi ondoren, eta arian-arian behera joan da orduz geroztik 2012ra bitarte, urte horretan berriz ere gora egin baitzuen nabarmen. Gauzak horrela, 2013ko datuak krisi garaiko altuenak izan dira 2009ko eta 2012ko datuen ondotik.

Espedienteek ukitutako lagun guztien % 77,5 kontratua bertan behera uzteko neurriek eraginda izan da (52.357 lagunetik 40.590); % 13,2 lanaldia murrizteko neurriek eraginda (6.919 lagun), eta 4.848 lagun kanporatu zituzten (% 9,3). Hau da, 2013ko azarora arte, ia 15 lagun kanporatu zituzten egunero EEEn bidez.

Lurren arabera, Nafarroan espedienteek 11.108 lagun ukitu dituzte, eta horietatik % 13,5 kanporatu dituzte; % 76,4ren kontratua bertan behera utzi da, eta gainerako % 10,1i lanaldia murriztu zaio. EAEn, espedienteek 41.249 lagun harrapatu dituzte; % 8,1 kanporatu dituzte; %

77,8ren kontratua bertan behera utzi da, eta % 14,1i lanaldia murriztu zaio.

## EEEk ukitutako biztanleria. Hego Euskal Herria, 2013ko Urtarrila-azaroa

	Kaleratze kolektiboak (%)	Kontratuen suspensioa (%)	Lanaldi murrizketa (%)	Guztira
Nafarroa	13,5	76,4	10,1	11.108
EAE	8,1	77,8	14,1	41.249
HEH	9,3	77,5	13,2	52.237

Iturria: Ministerio de Empleo y Seguridad Social

## 6. Ekonomiaren hazkunde negatiboa 2013an


Barne Produktu Gordinak balio negatiboak izan ditu 2013an. Lurralde lurralde,

Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren urte arteko datua % 0,3 murriztu da 2012ko azken hiruhilekoan; hau da, 0,8 puntu gutxiago aurreko hiruhilekoan baino. Nafarroan, BPGak ere balio negatiboagoak izan ditu, hots, -% 0,6 2013ko laugarren hiruhilekoan; hau da, 0,7 puntu gutxiago urte bereko hirugarren hiruhilekoan baino.

Espainiar Estatuan, urte arteko hazkunde-tasa ere negatiboa izan da, hots, -% 0,1, laugarren hiruhilekoan; hau da, puntu 1 handiagoa aurreko hiruhilekoan baino. Bestalde, 28-EBn, ekonomiaren hazkunde positiboa izan da azken bi hiruhilekoetan; 0,2 puntu hirugarrenean, eta puntu 1, laugarrenean.

Urteko bilakaerak goranzko joera erakutsi du kasu guztietan, eta HEHn nahiz Estatuan tasa negatiboak izan badia ere, gero eta txikiagoak izan dira. Europari dagokionez, hazkundearen tasa negatiboetatik (-% 0,7 lehen hiruhilekoan) positiboetara igaro da (puntu 1 laugarren hiruhilekoan). Nolanahi ere, eta erakunde ofizialak behin eta berriz esaten ari badira ere krisitik laster aterako garela, argi dago inola ere ez dela aurreikusten langabeziak hobera eginen duenik, ez lanpostu kopuruari dagokionez, ez lanpostuen kalitateari dagokionez. Azterketa Bulegoko azken Buletinean adierazi den bezala, langile pobreen ehunekoa garrantzitsua da eta gora doa.

## BPGa merkatu-prezioetan, urte arteko hazkunde-tasak (%). 28-EB, 2013




Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

## 7. KPIren bilakaera

2014ko urtarrilean, prezioak % 0,3 igo dira Estatuan, hau da, aurreko hilabeteetan adina, INEK KPI harmonizatu aurreratuari buruz emandako datuen arabera. 28-EBko datuei buruz, oraindik ere ez da argitaratu urtarrilari dagokiona.

Urte arteko KPI % 0,3 izan zen 2013an, Espainiar Estatuan. 28-EBkoa, aldiz, % 1. Espainiar Estatuan KPI gero eta txikiagoa izan da urteak aurrera egin ahala (urte hasieran % 2,8 izan zen), baina maitatzean (% 1,8) eta ekainean (% 2,2) handiagoa izan zen apirilkoa baino (% 1,5). 28-EBko bilakaera konstanteagoa izan da, baina hazkundea txikiagoa ere izan da urteak aurrera egin ahala, baina aldea txikiagoa da (urtarrilean % 2,1 izan zen, eta abenduan, % 0,3 izan da). Deflazio arriskua (prezioek orokorrean eta etengabe behera egitea) egiazkoa da hala Espainiar Estatuarentzat nola EB osoarentzat.

## KPIren urte arteko hazkundeak (%). 27-EB, Espainiar estatua, 2013-2014



Iturria: INE, Eurostat





1

## Eusko Jaurlaritzaren enplegu plana

Pasadan urtarrilean Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 Enplegu Plana onartu zuen. Bere esanetan, *“akzio plana da, ez hausnarketakoa”* eta *“aurretik egindako planak ordezkatzeko intentziorik gabekoa, azken Euskal Enplegu Estrategia bezala”* orain urtebete baino gutxiago aurkeztu zena, 2013ko martxoan, *“enplegua sortzeko txoke-plan bat, neurri konkretu eta errealistekin”* bere esanetan.

ELAk bere garaian adierazi zuenez martxoan onartutako planak, txoke-plan bat baino aurrez bazeuden egitasmoen meta eginda osatu zen. Orain bederatzi hilabete beranduago, hiru urtetarako (2014-2016) plan bat aurkezten da aurrekoa ordezkatu baino, bere itzala dena, edukia osotasunean barneratzen duena eta neurri zehatzetan ezer berri suposatuz.

Planaren edukia aztertuta, ELAk honakoa nabarmendu du:

- **Plan oso lausoa da.** Hausnarketan ez sartzeko helburuarekin bat egiteko neurri, helburuei, eta garapenari dagokienez ez da batere konkretua. Oinarrian *“babestea, sustatzea, aholkatzea, orientatzea”*, hitz hutsak, funtsik gabekoak.
- **Kontinuista da.** Aurreko planak, 2013-2016koak, ezarritako programak guztiz oinarritzat ditu, Elkartasun Fondoarena baino, desagertzen baita. Ekintzak berdinak badira ere, finantziak ezberdina (Eusko Jaurlaritzaren finantziak indartu eta errekurtsio pribatuena gutxitu egiten da).
- **Porrot egindako, agortuak, eta prekaritatea areagotzen duten programak dira.** Proposatutako neurriak aurretik erabili dira, enplegua hobetzeko batere lagungarriak ez dira izan eta gehienetan enplegu prekarioa eta behin behinekoa besterik ez dute suposatu. Enplegu

prekarioan sortzea dute helburu, lan duina alde batera utziz.

- **Oraingoan ere parte hartzeko aukerarik ez.** Plana Eusko Jaurlaritzaren lan unilaterial bat izan da, eta bere edukia Parlamentura eraman ditu. Planak aurkakoa esanagatik, eta ohikoa izaten ari den bezala ekarpenak egiteko aukerarik gabe egindako plana da. Gaia kezkatzekoa bada ere, Gobernuarentzat parte hartzea ez da hain garrantzitsua dirudenez. Errazagoa da esatea behin egin eta aurkeztuta plan ireki bat dela, propaganda, itxura hutsa.
- **Ez da errealista.** Neurri bat baino gehiago eta eragin guztiak (lana sortzeko eta mantentzeko helburuak) sinesgarritasunik gabeko kalkuletan oinarritzen dira. Aipatutako neurrien zati batek (esaterako, etxebizitzaren renove planak edo autolana edo ekintzaileak) herritarren aldetik inbertsio ekonomikoak egitea eskatzen du, eta hori egungo krisi latzean ez da egiteko modukoa, nahiz eta planak gehiegi mikrokredituen ematean oinarritzea.
- **Aurrekontua ez da nahikoa.** Oraingoan eta zenbait neurrietan Eusko Jaurlaritzak bere ekarpen publikoak handitzeko beharra izan du, entitate pribatuen ekarpenak gutxitu egin izanagatik. ELAk esan eta gaitzetsi bezala, ekimen pribatuaren ustezko ekarpenak gehitzea, Foru Aldundienak, udalenak eta are Europar Batasunarenak edota espainiar Gobernuarenak onartzeina zen. Honelako plan batean ez da posible beste erakunde eta eragile batzuren esku dauden kopuruak gehitzea, erabakita egongo bailiran. Honek azalpen logiko bakarra du, ahalegin handi baten itxura eman nahi izatea, oinarri objektiborik ez duten kopuru arranditsuak saltzea, benetako aurrekontua oso urria delarik.
- **Enplegua sortu eta mantentzeko buruzko datuak ez dira sinesgarriak, bi arrazoiengatik.** Batetik, egiten diren estimazio edo proiektioen oinarria lehen urterako helburuak biderkatzearena alegia. Bestetik, EAEko aurrekontuak moztu

## Hilabete honetako puntako gaia: 2014-2016ko enplegu planaren balorazioa eta ELaren proposamenak enplegu duinaren alde

dituztenez, aurreikusitako kopuruak ere murriztagoak dira; beraz, enpleguan kalterako eragina izango dute, lanpostuak suntsituko dira. Neurriak gehiago zehazteke ezinezkoa da asmatzea enpleguan izango duten eragina. Nolanahi ere, behin eta berriz “*estimazio*” edota “*proiektzio*” bezalako hitzak erabiltzeak adierazten du kopuruak ez direla sinesgarriak. Are gehiago, 2013ko martxoko planak eta 2014-2016koan ezarritako helburuak berdinak edo zertxobait baxuagoak dira, batez ere entitate pribatuek egindako ekarpen gutxitzeagatik, Beraz azken urtean ezer gutxi egin izana pentsatzea guztiz zentsuzkoa litzateke.


- **Jaurlaritza enplegu-emaile gisa ez da agertzen.** Ahaztu egiten dira bere politikak: lanpostuak amortizatzea, aldi baterako enplegua murriztea, ordezkapenak ez egitea, elkarte publiko eta azpikontratetan dituzten eraginak, etab.
- **Planak berretsi egiten ditu langabeziaren hazkundera eragin duten politikak.** Esparrutzat hartzen dituzte Europar Batasunean eta espainiar estatuan bultzatzen ari diren politikak. Halaber, Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak murriztu behar dituela ontzat ematen da. Horrenbestez, langabeziaren hazkundera eragin duten politikei men egiten zaie eta onetsi egiten dira. Instituzioen borondatea argia da, defizit publikoa jeitsi eta diru sarrerak handitu ez (fiskaltasun politikak berdinak izaten jarraitzen baitute). Politika honek hurrengo hilabete eta urteetan langabezia areagotzen jarraituko dute.

Beraz, Plan honi buruz ondorio hauetara iritsi gara:

1. **Eusko Jaurlaritza enpleguarekin arduratuta ez egotea ematen du.** Aurrekontuak murrizteaz (oraingoak eta hurrengoak) -honek langabezia haztea dakarrelarik- eta enplegu publikoa suntsitzeaz gainera, Enplegu Plan hutsal bat aurkeztu du, kezkatzen dela eta arazoari azkar heldu nahi diola adierazteko. Arazoa

oso larria da, eta irtenbide eragingarriak, konprometituak eta berehalakoak behar dira.

2. **Langabezia koartada da, ez helburua.** Jaurlaritzaren langabeziarekiko kezka erretorika hutsa da. Kasurik hoberenean, Jaurlaritzarentzat langabezia bere politikaren “*albo-efektu*” bat da. Bere kezka benetakoa balitz, politikak errotik aldatuko lituzke, eta zalantzan jarriko lituzke (ez bere egin) murrizteko politikak, Europar Batasunak, Rajoyren gobernuak edo Jaurlaritzak berak erabakita direla ere. Aurrekontu- eta zerga-politikak goitik behera aldatu ezean, langabezia, txirotasuna, prekarietatea eta desberdintasun soziala areagotzen duten errezetak aplikatuko dituzte.
3. **Eusko Jaurlaritzak prestakuntza ereduan ez du aldaketarik egiteko beharra aipatzen, sistemaren kalitatea alboratu eta interes ekonomiko jakin batzuk (patronala, CCOO eta UGTrenak) lehenesten dituen arren.** Gainera, ez da inolako aldaketarik proposatzen “*enplegurako prestakuntza*” izenekoan, denek, Jaurlaritzak berak barne, onartu arren oso kalitate eskaseko eredua dela, non lehen helburua Confebask, CCOO eta UGTri dirua banatzea den eta ez EAeko beharrian sozial eta ekonomikoak aintzat hartzea. Eredu hau babesten jarraitzea gizarteari iruzur egitea da; hau, bat dator fikziozkoa den Elkarrizketa Sozialeko Mahaia mantentzeko borondatearekin.
4. **Enplegu planaren arabera aldi baterako kontratuak diruz lagundu eta enplegu prekarioak lehenetsiko dira, soldata apalekin eta hitzarmenak aplikatzen ez direlarik.** PPK Espainian egiten duen politikari jarraitzen diote horrela. Bide honetatik, hots, enpresei dirua emanaz, ez da lanpostu bat bera ere sortzen. Ezin da onartu administrazioak prekarietatea eta negoziazio kolektiboan salbuespenak sustatzea. Estatistikak apaindu baino ez dute nahi, enplegu hutsalak sustatuz (behin behinekoak, aldi baterakoak, etab.)



5. **Jaurlaritzak eredu sozialari eusten dio.** Banakako pentsamoldea indartzen da (nork bere burua salba beza, autoenplegua, banako ekimen pribatua...), helburua gizarte indibidualista eta gero eta urriagoak diren lanpostuak lortzeko lehia piztea baita, eta ez enplegua sortzea edota gizartearen baitako elkartasuna. Kolektiboa den guztia suntsitu nahi dute, baita gizartearen kohesioa definitzen duten osagaiak ere.

## 2

### Kalitatezko enplegua sortzeko ELAren proposamenak

ELAren iritziz enplegu-politika kalitatezko lanpostuak sortzen dituena da. Beraz, gogoeta ez da ohiko gaietan agortzen (oso garrantzitsuak izanagatik ere), esaterako prestakuntza sistema egoki baten beharra edo gizartearen beharrizanak asetzeko moduko enplegu-zerbitzu publikoa; aitzitik, aintzat hartzen ditu ere lanpostuak sortzeko aukera ematen duten politika estrukturalak.

Hauek dira ELAren proposamenak:

1. **Kalitatezko enplegua sortzeko politikak izateko lehenik erabateko aldaketa egin behar da aurrekontu.** eta zerga-politikei dagokienez. Doikuntza politikak eta aurrekontuak murrizteak langabezia zeharo gehitzen ari dira. Horregatik, ezinbestekoa da aurrekontu-politika horiei buelta ematea. Gastu publikoa gehitzea ezinbestekoa da, eta honetarako azken urteetako zerga-politikak ere errotik aldatu behar dira; hala eskatu izan du ELAk hainbat proposamenetan. Europar Batasunarekiko defizit fiskala gogoratu beharra dago (urteko 2.000 milioi euro Nafarroan eta 4.400 EAEn), baita horrek eragiten duen deskapitalizazioa eta enplegua sortzeko borondatearen ukapena ere.

2. **Arlo publikoa garatu behar da, batik bat Ongizate Estatuarekin zerikusia duten zerbitzuak.** Hego Euskal Herrian gastu publikoa gizarte-babesari dagokionez (BPGaren %24,5) batez besteko tasa europarra (% 29,4) baino askoz txikiagoa da, eta honek gizarte-babesaren eta enpleguaren maila jaitsi arazten du. Enplegu publiko maila gehitu behar da hainbat arlotan: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, garraioa, etab. Gizarte-babesa hobetzeak kalitatezko enplegu gehiago izateko aukera ematen du. Alabaina.

3. **Lanaldi murrizketa, soldata jaitsierarik gabe.** Langabeziaren gorakadaren ondorioz produktibitatea asko hazi da, eta honen fruitua enpresen etekinetan metatzen da. Hots, aberastasunaren banaketan lan-errenten zatia gero eta txikiagoa da, enpresarioen eta kapitalaren errenten mesedetan. Lanaldia 35 orduja jatea, soldata murrizketarik gabe, enplegua sortzeko politika bat da, eta erabat egingarria da aberastasunaren banaketa justuagoa izatea onartuz gero. Izan ere, kontrara egiteak, Jaurlaritzak egin duen bezala -bere garaiko akordioak baztertzuz eta Legebiltzarraren 35 orduko lanaldia ezartzen duen legea urratuz- jende gutxiagok ordu gehiagoz lan egingo du. Gainera, lan produktibo zein erreproduktiboaren banaketa ere eztabaidatu beharra dago.

4. **KPIz gaindiko soldata igoerak eta gizarte-babeseko maila duinak.** Enplegua sortzeko aukera ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko ahalmenarekin lotuta dago. Enplegurik ez badago eta lan-baldintzak gero eta okerragoak badira, ezinezkoa da ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko. Oinarriztat esportazioa hartzen duen ereduak ez du orekatuko barne-kontsumoa jaisteak eragindako enplegu galera. Nola erosiko dugu, diru-sarrerarik gabe? Horregatik, ekonomiarenak egin du soldata jaitsierak eta gizarte-prestazioak murrizten dituen politikak ezarriz gero. Egiatzatuta

## Hilabete honetako puntako gaia:

# 2014-2016ko enplegu planaren balorazioa eta ELAren proposamenak enplegu duinaren alde

dago soldaten erosteko ahalmena eta gizarte-babesa hobetzeak enplegua sortzen duela eta errentaren banaketa justuagoa ahalbidetzen duela.

- 5. Gutxieneko soldata duina eta gehienezko errenta ezartzea.** Gutxieneko soldata lan-eta bizi-baldintza duinak bermatzeko tresna izan beharko litzateke. Haatik, espainiar estatuan finkatutako zenbatekoa (hileko 645,3 euro, edota 748,3, aparteko pagen zati proportzionala aintzat hartuz gero) oso eskasa da, inondik ere. Gainera, Frantzia, Herbehereak, Irlanda edo Belgikako 1.400 euroak baino askoz apalagoa da, eta zer esanik ez, Luxenburgoko 1.800 euroak baino. Beharrezkoa litzateke ere gehienezko diru-sarrera baimendu bat finkatzea, aberastasuna esku gutxitan pila ez dadin. Auzi honek justiziarekin, demokraziarekin eta Lurrari izan beharreko errespetuarekin du zerikusia (mugak ezarri behar zaizkio planeta mugatu honek jasaten duen harrapaketari). Errebindikazio hau gauzatzeko hainbat bide badago, esaterako diru-sarrera edo etekin maila jakin batetik gora %100eko tasa marjinala.
- 6. Finantza-erakundeen jarduna erabat aldatzea.** Aurrezki-Kutxen bankarizazioan atzera egin behar da (Kutxabank, CAN). Halaber, finantza-sistemaren jardunbideari beste norabide bat eman behar zaio, familientzako eta enpresentzako kreditua eman dezan, espekulazioa alde batera utzita eta zerga-ebasioarekin zerikusia duten aktibitateak debekatuz (paradis fiskalak). Euskal enpresa askoren arazoa kreditu gabezia da; hau mehatxua bihurtu da baita enpresa sendoentzat ere, etorkizuna duten produktuak izan arren. Egungo finantza-sistemak ez ditu dauden beharrianak asetzen, baztertu beharrekoak diren jarduera espekulatiboen ondorioz. Egungo krisia eragin duen espekulazioak bere hortan jarraitzen du.
- 7. Industria-politika.** Finantziarioa bermatu behar da (inbertsioetarako, I+G+Brako edota zirkulanterako), proiektua eta etorkizuneko produktua duten enpre-

sentzat. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak sektore estrategikoak definitu beharko litzuke, eta horrekin batera, hauek bultzatzeko plan konkrituak. Produktu osagarriak eskaintzen dituzten enpresen artean sinergiak bultzatzeko proiektu eta planak ezinbestekoak dira. Honetaz gainera, beharrezkoak dira ere honakoak:

- Erakundeen jardura aktiboa etorkizuna zalantzan duten enpresentzat kapitala lortzeko bitartekaritza.
- Enpresen nazioarteratzeko prozesuak lagundu eta sustatzea.
- Enpresa txiki eta ertainei buruzko plan konkrituak abiaraztea.
- Ikerketa eta garapenari buruzko hausnarketari ekitea, kontutan izanik diru publikoz lagundu dena gizartearen zerbitzura jarri behar dela.

- 8. Enplegu berdea sustatzea.** Oinarrizkoa da jardura iraunkorrak sustatzea, ikuspuntu ekonomiko, sozial, zein ekologikotik. Egunetik egunera nabarmenagoa da premia larria dela produkzio, banaketa eta kontsumo eredia aldatzea. Atmosferan neurtzen den CO2 maila da horren isla: dagoeneko milioi partikulako 400dik gora dago, eta onargarri iriztitako gehienezko kopurua 350 da. Besteak beste, enplegua sortzeko aukera handia dago energia berriztagarrietan, hondakinen kudeaketa eta tratamenduan, lurzoruen erregenerazioan, nekazaritza ekologikoan (eta lehen sektoreak beste sektoreekiko duen harremanean), kontaminazioaren kontrol eta prebentzian, etab.
- 9. Azken urteetan erabaki diren pentsio erreformak indargabetzea.** Azken erreformek erretiro adina atzeratu egin dute 67 urteraino, eta pentsio berriak murriztu, erosteko ahalmena bezala. Erretiratzeko adina atzeratzeak gazteen langabezia gehitzen du. Horrenbestez, murrizketak bertan behera utzi behar dira eta pentsioak duinagoak izan behar dira, langabezia murrizten lagungarri izan daitezten. Langile



guztiek, edozein kontratu mota dutela ere, Gizarte-Segurantzan kotizatu behar dute.

**10. Enplegua mantendu.** Erreforma laboralek lana malgutu egin dute, enpresarioaren erabaki unilaterala medio. Honek kaleratzeak gehitzea eta enplegua prekarizatzea eragin du. Malgutasun handiagoaren ondorioz langabe kopurua hazi egin da, eta horrenbestez, beharrezkoa da eskubide laboralak hobetzea, azken urteotako erreforma laboralak eta negoziazio kolektibokoak indargabetuz; horrela enplegua suntsitzea galaraziko litzateke, eta lan-baldintzak hobetu. Honi dagokionez, beharrezkoa da zio ekonomiko, organizatibo zein produktiboak medio erabakitako kaleratzeak ez onartzea, enpresek etekinak dituztenean, edo aurreko ekitaldietan izan dituztenean.

**11. Enplegu-Zerbitzu Publiko sendoa eta kalitatezko formazio eredu bat garatzea, EAEko beharrian errealak asetzeko:**

· Egungo enplegurako prestakuntza eredia Espainiakoaren kopia da, hots, porrot egin duen eredu kaskar batena; estatuko ereduak gauza bat besterik ez du ziurtatzen, partaide diren erakun-

deentzako etekin ekonomikoa, izan ere, funts publikoen herenetik gora beren buruari bideratzen baitiote. ELAk galdegiten du eredu hau bazter dadila eta bertoko diseinu bat ezarri, gure lurraldearen beharrian sozial zein ekonomikoen arabera eta ospea duten lanbide heziketako zentro homologatuek emango dutena.

· Bitartekaritza laboralari buruz, ELAk aldarrikatzen du Enplegu-Zerbitzu Publikoak egin dezala, erakunde pribatuentzako diru-laguntza eta finantziario sistema alde batera utzita; erakunde horiek sarri ez dute zerbitzu egokirik eskaintzen, ez aukera-berdintasuna bermatzen.

· Enplegu eta formazioko eskumenen transferentzia salatu, erabakitze ahalmenik gabe eta galera ekonomikoa eraginez gauzatu baitzen. Enplegu-politikei buruz erabakitze ahalmena (politika aktiboek zein pasiboek dago-kenez) euskal erakundeen esku behar dugu, hau funtsezko osagaia baita Lan-Harremanen eta Gizarte-Babesaren Esparrua deitzen diogun horretan.



